

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Erriberriko Andre Mariaren elizaren aurrealdea zaharberritzeko obrak bisitatu ahalko dira larunbatetan

*Ordu erdiko ibilbideak izango dira, doan eta kultur ondarearen langile teknikoek gidatuta*

Jueves, 10 de diciembre de 2015

Nafarroako Gobernuak doako bisita gidatuak antolatu ditu Erriberriko [Andre Mariaren eliza](#)ren aurrealdea bertatik bertara ezagutzeko, eta urritik aurrera bertan egiten ari diren zaharberritze-obrak ezagutzeko.

Ordu erdi inguruko bisitak izango dira larunbat goizetan, lehenengoa, datorren larunbatean bertan, abenduaren 12an; bisitak 2016ko azarora arte luzatuko dira, data horretan lanak amaituta egotea espero baita.


Ibilbidean kultur ondareko langile teknikoen laguntza izango da, hamar pertsonaz osatutako taldeak egingo dira, 14 urte baino gehiagokoak eta mugitzeko arazorik ez dutenak, aldamiara igoko baitira.

Bisitetan parte hartzeko, nahitaez [Erriberriko Informazio eta Turismo Bulego](#)an izena eman beharko da, aurrez aurre, 948 741 703 telefonora deituta edo ondorengo helbide elektronikora mezu bat idatziz: [oit.olite@cnavarra.es](mailto:oit.olite@cnavarra.es). Beharrezkoa izango da bisita-data, partaide-kopurua eta harremanetarako telefono-zenbaki bat jartzea.

Parte hartzen duten pertsona guztiek nork bere burua babesteko ekipamendu bat jasoko dute, kaskoa erabiltzea nahitaezkoa baita, eta oinetako itxia, takoirik gabea, eraman beharko dute. Obra baterako bisita izatean, une oro, eta segurtasun-arrazoiengatik, adierazitako ibilbideak eta gidariaren aginduak errespetatu beharko dituzte.

Ibilbide horiei esker, jendeak, eta kultur ondarean espezialistak diren profesionalen eskutik, Andre Maria elizaren aurrealdeko balio artistikoa eta historikoa bertatik bertara ezagutzeko aukera izango dute.

Ekimen horrekin, Ondare Historikoko Zerbitzuak adierazi duenez, gizartea kulturara eta haren adierazpideetara hurbildu nahi da, eta Nafarroako Gobernu nahiz Gondra Barandiaran fundazioa Foru



Erriberriko Andre Mariaren elizaren aurrealdeko tinpanoaren artxiboko irudia.

Komunitateko kultur ondareko ondasun batean egiten ari diren birgaitzean herritarrak partaide izan daitezzen.